

# GALAPAGO IRLETAKO EREDUAK

Argazkiak eta testua: **Txomin Peillen**

**I**RLA zoragarriak izan ondoren, ugarte horiek “Irla ustiatuak” izan ziren *Charles Darwin Research Center Station* 1959. urtean ireki zen arte, zeren 1935.ean Ekuadorrek irla haiek Nazio-Erreserba aldarrikatu ondoren, Izadiak pairatu zituen suntsiduren azterketa baizik ez bait zen egin. Geroztik Unesco-k ere lagundu dio salbapen-ekintza honi, munduko izadi-altxor sailkatuz.

Charles Darwin eta bere aurretik itsaslapur eta itsasgizonek ikusi zuten paradisuak, bere basa bizitza galtzera zihoan. Irla haietan Char-

**Itsas iguana-taldea, Rabida irlan (Iguana horia)**



**Itsas txakur arra lo.**



**Itsas iguana beltza.**



**Itsas txakur ama-kumeak.**

les Darwinek bizi-bilakaerari buruzko teoria eraiki zuen. Jakintzaleku izan zena eta izango dena, basamortu bilakatzen zihoan, lehenbizikoen ustiapen itsu eta latzak eta ondokoen axolagabekeriak hondaturik... *The origin of Species* liburu ospetua sorterazi zuten “Irla zoragarriak” gehiago merezi zutelako, Ekuadorko jendea eta jakintza-mundua aski goizik jabetu ziren.

Galapago irlen deskribapena baino gutxiago eta gehiago egin nahi nuke. Sailkapen bat lehenik, hiru irla-mota badirela esateko: irla itxiak (oso gutxitan aditu batek ikuskatzen dituenak, biztanlerik ez daukatena), irla erdiirekiak (turista-kopuru batek, egunez eta bide

**Antxeta  
enara-  
-buztanduna.**



berezi batzuetan ibiliz ikus ditza-keena) eta irla zabalak (landare eta abere, pizti eta zuhaitz zailago eta arruntagoz biztanletuak).

Horrez kanpo galtzear dauden basapiztientzat babeslekuak eta hazilekuak antolatu dira. Horregatik, bi norabide horiek ikertuko

**Galapagoetako  
zapelatz edo belatza.**



ditugu: salbatu egin diren eta erraz hurbil daitezkeen animaliena, eta beste artikulatu batean, galzorian daudenena.

Nolanahi ere, gure bisitaldian biztanle iraunkorrik, ehiztaririk eta zaratarik ez izateak basapiztiak mantsotu egiten dituela ikusi dugu, ezen errespetuzko urruntasuna edukiz gero (metro bat) ez bait ziren ez hegaztiak ez ugaztunak haserretzen eta ez bait zuten ihes egiten. Hurbilegi ginenean iguanek ttu egiten ziguten buru gaineko kulula

eraikiz eta itsas txakurrak zaunka hasten zitzaizkigun haginak erakutsiz (ikus, argazkia).

**Basa ehiza salbatuak**

**O**ngi zaindu eta babestu diren pizti-espezieak, gainera nasaiki ugaltzen direnak, ikusten dira Galapagoetan. Halaxe ditugu hegaztien artean zanga oinurdina (piquero de patas azules) euli-txori gorria (Pajaro brujo) fregata hegaztia, ubarroi hegogabea (*Phalacrocorax apterus*) amerikar pelikano arrea eta sasipinguinoak (*Spiniscus mendiculus*), talde handietan irla-ertz guztietan bizi direnak (irletan jenderik ez dagoenean, ehiztaririk ez denean, bisita gutxi egiten zaienean). Beste irletan ordea, kaio, fregata eta albatrosez kanpo ez ziren besteak agertzen. Hegaztien artean ez da horrelako desorekarik, zeren Galapagoetako zapelatz hor bait dago, gaixoak eta ahulak egozteko (ikus argazkiak).

Noski, barrukaldean irla horiek lehorrak izaki, zelai aldeetan behintzat ez da hainbeste ur eta aintzirarik: ez dugu antzara edo basa ahaterik ikusi; ezta agindutako flamenkoak ere nabaritu. Mendietan ez ginen ibili, baina, eta San Cristobal irlako goi aldean nekazaritza sartua omen da. Beraz ez dut uste





**Oinurdin zanga**  
(Isabela irla)



—erakutsi ez bazizkiguten ere—  
oihaneko hegazti asko dagoenik,  
papagai edo loro batzuk kenduta.

Horregatik ura itsasertzean da-  
goelarik, hor ere aurkitzen ditugu  
ugaztunak, nagusiki beren jatekoa

**Amerikar pelikanoa**  
(Isabela irla)

itsasotik ateratzen dutenak, hala  
nola itsas txakurra (ikus argazkia),  
Mexikoko itsas lehoia baino txikia-

goa —eta ehizatua ez denaz gain—  
metro bat urrun hurbiltzen genu-  
na. Galapagoetako itsas lehoi edo





**Itsas txakur-kumea amaren zain (Isabela irla)**



**Parekatu gabeko itsas txakur-taldea (Rabida irlan)**



otaria horiek dotoreago dira, ero-soago itsasoan igerika, baina lurreratzen direnean, fokak baino errazago dabilta lehorrean. Halabeharrez lurreratzen dira, ezin bait dira itsasoan ernaldtu eta umatu. Noski, gizaki bizizalerik ez duten

irlak aukeratu dituzte lehorreratzeko.

Irlatasunaren garrantzia bizidunen bilakaeran nabarmenki ageri da Galapagoetan, nola irla batean itsas iguana handi eta horia eta bestean txiki eta beltza den.

Zorionez berrogeitamahiru irla daude han, ezen halaxe txandaka irla batzuk bisitalariei irekiz besteetan bizidunak "basa" jarraitzen laguntzen bait dute, basatasun horrek izua kentzen dietelarik eta ugaltzea errazten. 